

BEZEROAK

Gure enpresaren faktore guztiak kontuan izateko eta gure bezeroak ere ondo analizatzeko, ingurune espezifikoaren azterketa bat egin dugu:



JU&MI Enpresaren bezeroak gure inguruko jendea izango zen, Urnietan bizitzen den herriko jendea gehien bat.

Baina, behin denda hasita, inguruko herrietara iristea espero dugu.

Gure lehiakideen artean, zentro komertzialak daude (Urbil, Garbera...), bertan denda mota ugari biltzen direnez. Hala ere, teknologian egon diren aurrerapenen ondorioz, on-line erosketak oso ohikoak bihurtzen hasi dira, beraz, on-line sortzen hasi diren dendak ere lehiakideak dira (Shein, Temu...).



Lehiakide horietaz desberdintzeko, hasieran aipatutako zerbitzuak eskaintzen ditugu. Horiek aparte ez ditugu lehiakide gehiago, Urnietan ez dagoelako beste arropa dendarik.

Gure enpresa kontratatu dituen hornitzaileak bi izango dira, horietako bat, gure hornitzaile nagusia izango da eta hornitzaile hori behar ditugun materialak (Haria, tela, kafea...) emango dizkigu. Bigarren hornitzailea badazpada edukiko dugu, lehenengo hornitzailearekin arazo bat izanez gero, bigarren hau erabiltzeko.

Gure enpresak MAKRO Enpresa saltzen dituen produktuak erosten ditu. Gure kafetegian behar ditugun elikagaiak erosteko.



JU&MI Enpresan eskaintzen dugun arropa emakume heldu eta gazteentzat dago bideratuta. Gure dendan ez dugulako umeentzako edo gizonezkoentzako arroparik eskaintzen.

Pertsonalizatua dagoen arropa eskaintzen duen enpresa gara, beraz, ekitaldi garrantzitsu batera joateko arropa lortu nahi duten bezeroentzat bideratuta dago ere.

Hortaz gain, gure dendan eskaintzen ditugun zerbitzuei esker, arropa moldaketa asko eduki dezake, beraz, gure bezero mota gehienak, gorputzera moldatzen den arropa aurkitu nahi duten pertsonak dira.

